

# Aretxagazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1998ko urriak 1 • 152. zka.



## Gripearen gorabeherak

Nola aurrea hartu

# TELAETXE S.A.

*Neguko  
telak prest,  
tapizeri  
berriak,  
kortina  
aukera  
haundia*



**ORDUTEGIA**  
Astelehenetik zapatara  
Goizez 10:00-1:00  
Arratsaldez 4:00-8:00

**...eta gainera: sedak, toailak, izarak,  
edreoi nordikoak, etab.**

Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotones Agirrezabal"en ondoan)  
Telefonoa: 943 76 39 40 • Faxa: 943 76 56 38 • BERGARA



**MITSUBISHI  
MOTORS**  
ALDIKAR AUTOAK, S. L.



ALDIBI AUTOAK, S. A.



**GALOPER**  
ALMOVIL, S. L.

**LURROROTAKO ESKAINTZARIK ZABALENA  
NON?**

**ZATOZ**

**Aldi bi ra**



**MITSUBISHI L200**



**NISSAN TERRANO II**



**GALOPER**

Zigarrola kalea, 1 - 20500 Arrasate • Tel: 943 71 20 02 - Faxa: 943 79 65 65



# Ikasturtea, zer moduz hasi duzu?

## Jon Etxebarria

(6 urte)

Gustora hasi naiz ikastolan. Aurten lehenengo mailara noa eta gehien gustatzen zaidan ikasgaia gimnasia da.

Andereño ona daukat eta oraindik ez nau zigortu.



## Maitane Barrenetxea

(15 urte)

Ez oso gustora, iaz baino lehenago hasi baita eta ikasgaiak zailagoak dira. DBHko 4.mailan nago eta gehien gustatzen zaidan ikasgaia fisika da.

Aurtengo ikasturtea oso gogorra izango da.



## Ainhoa Garro

(4 urte)

Oporretan hobeto baina pozik hasi naiz. Andereño berria daukat eta oso ona da. Jolas eta abestu egiten dugu, baita marrazkiak egin ere.



## Gorka Rodríguez

(9 urte)

Egunero ez naiz joaten gogo onez. Laugarren mailan hasi naiz eta ikasgai ezberdinak ditut. Gutxien gustatzen zaidana euskara da, zaila baita.



## e s k u t i t z a



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

San Migeletako zapatuan herriko plazan postua jarri zuen Aretxagazetak. Gure helburua, bertan irakur zitekeen moduan, 100 bazkide berri egitea zen, hori lortzea zaila izango zela jakin bage-

nekien ere. Baina esan beharra daukagu herritarrok ondo erantzun duzuela, 60 bazkide berri egitea lortu baitugu. Hauekin batera gure lehengo bazkide leialak ezin ditugu ahaztu hauetako asko hasiera hasieratik gure artean izan baitira (eta kamisetarik jaso barik, gainera). Ba... zuoi



## Eskerrik asko

Bestalde, kamiseta salmentan ere oso ondo erantzun zenuten. Gustora ibil ditzazuela! Bukatu aurretik jakin oraindik ere baditugula kamiseta batzuk saltzeko. Besterik ez, guztiagatik mila esker bihotzez.


guztioi esker Aretxagazetak 450 bazkide ditu momentu honetan. Guztioi sinenez eskerrak eman beharrean gaude, Aretxagazeta herritar guztiona baita eta zuei esker baigoaz aurrera.

ARETXAGAZETAKO BATZORDEA

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Iruere, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa eta Mirari Altube **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzailea:** Janete Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

# Kolektore sarea sartzeko lanak

Urriari hasiko dira lanak eta hiru hilabete inguru iraungo dute



Loramendi inguruko kaleen planoak.

Urriaren erdi inguruan kolektore edo saneamendu sarea sartzeko lanak hasiko dituzte. Lan hauek bailara osoan burutu behar dira eta Eskoriatzan hasitakoei orain Aretxabaletan emango zaie jarraipena. Erreka garbitzeko bide bakarra kolektore hau sartzea dela ikusi da

eta bertan Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Uren Kontsortzioak hartuko dute parte.

Obrak bi zatitan eta bi enpresa ezberdinek burutuko dituzte eta kolektore nagusia eta bigarren mailakoak sartu beharko dira. Horrelako lanak beti uren kontrako

norabidean egiten direnez, lehenengo zatia Belorrieta kaleko rotonda berriari hasi eta Ederlaneraino izango da, ACS enpresa ibiliko delarik bertan. Bigarrena, berriz, Altuna eta Uriak egingo du, Lausitan hasi eta Andra Mari auzunean bukatuko delarik; honi ordea azaroa inguruan ekiteko asmoa dago. Lehenengo zatiko lanek hiru hilabete inguru iraungo dute, baina kontutan hartu behar da ezkutuko zerbitzuak ager daitezkeela eta hauek atzerapena ekar dezaketela.

Bi zatitako obrak leku berean batera egon ez daitezzen zainduko da. Bigarren zatia Arrasate aldetik hasiko da eta horri buruzko datuak hurrengoan emango dira. Momentuz, herritarrei ahal den buruhauste eta eragozpen txikiak sortzeko asmoz, lehenengo zatiko obren jarraipena eta kale bakoitzeko gertaerei buruzko informazioa eman nahi du Udalak.

## 1. ZATIA, Belorrieta-Ederlan:

**1.- Belorrietako rotondatik Jose Mari bodegoiraino.** Nafarroa kaleko zati hau itxita geratuko da eta kotxeek Loramendi kaletik Bizkaia kalera sartu beharko dute. Aparkalekuak ere ezin izango dira erabili.

**2.- Bizkaia kalea.** Kale osoa itxiko da, Loramendi kale guztia eta Araba Ibilbidea, berriz, zabalik geratuko dira. Barruko kaleek Gorbeia, Zاراia,... ez dute arazorik izango, Gipuzkoa kaleak ezik (Euskaltegia), hau itxita geratuko baita.

**3.- Araba Ibilbidea, Bizkaia kaletik Loramendi kaleraino.** Guztiz itxita geratuko da, kotxeak Loramendi eta Bizkaia kaletik ibili beharko direlarik.

**4.- Araba Ibilbidea, Loramendi kaletik Portasolgo semafororaino.** Erabat itxiko dute eta

Loramendira, herri erditik sartu beharra egongo da. Solohandi eta Portasolgo etxeetara, ordea, sartu ahal izango da, baita Coprecira ere, Baintxe kaletik.

**5.- Semaforotik, Markoleko zubi berriraino.** Itxi egingo da zati hau eta trafikoa Markoleko zubitik, Markole kalera bideratuko da; hemengo zubia pasa eta Araba Ibilbideaz bat egin daitekelarik.

**6.- Markoleko zubitik Ederlaneraino.** Errepidea pasa eta erredera bideratzeko, Aretxabaleta hegoaldeko sarrera itxi egingo da, erdialde eta iparraldeko erabili beharko direlarik.

Kale batean obretan hasi baino lehen, aurretik itxitakoa zabaltzen saiatuko dira, nahiz eta hasieran batean ez egon asfaltaturik.

**IRIARTE**  
Umeen denda  
  
Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 10 96

**FELIX PAGALDAY**  
  
Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea  
Tfnoa: 943 77 00 33/79 42 56

**CONSTRULAN S.L.**  
  
ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK  
Tfnoa: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
Lyonel Arquero  
Dekorazioa:  
Soraya Arquero

# Hainbat eskualdetako folklore eta gastronomiak bat egingo dute urriaren 11n

**Gaztela Leon, Errioxa, Galizia, Extremadura, Andaluzia eta bertako produktu eta dantzen erakusketa izango da herrian urriko bigarren domekan**

Produktu eta dantza erregionalen bigarren edizioa urriko bigarren domekan, hilak 11, ospatuko da. Egun honetan folklorea eta gastronomia nagusi izango dira herriko kaleetan eta plazan. Iaz KIUB eta udaletxeko kontsumo sailaren eskutik lehen aldiz antolatu zen ekitaldiak izugarritzko arrakasta izan zuen eta aurrean antzeko ekitaldia berrantolatzeko ilusioz daude antolatzaileak. Berrikuntzarik ez da faltako, oraingo honetan Gaztela Leongoen presentzia eta Jakion, bertako produktuen erakusketa, ere izango baitira.



*Sei herrialdeko dantza eta produktuak izango dira egun honetan*

## Gaztela Leon eta Jakion

Gaztela Leongo taldea eta Jakion enpresaren produktuak, iaz etorri ziren “Corazón de Encina”, “Al Andalus”, Errioxa, Galizia eta herriko Loramendi dantza taldearekin batera, hementxe izango dira egun honi benetako jai giroa emanaz. Horrela goizean Ibarra futbol zelaitik irtengo dute, ondoren Loramendi, Belorrieta, Errekabarren, Lausita, Santa Kurtz, Mitarte eta Durana kaleetan zehar pasakailea egin eta plazan amaitzeko. Hemen folklorea eta gastronomia bat egingo dute goiz eta arratsaldean zehar, herrialde bakoitzeko dantzak, musika eta janari tipikoenak ikusi eta dastatzeko

aukera paregabea egongo da. Beraz, besteak beste Andaluziako fina, Galiziako pulpoa, Extremadurako pintxo morunoak eta Jakioneko produktuak dastatu nahi dituenak aukera paregabea izango du egun honetan, herriko plaza herrialde hauetako jaki eta produktu tipikoez josita egongo baita.

## Integraziorako lagundu

Martin Garai egun honetako antolatzaileetako batek adierazi bezalaxe egun hau kanpokoak eta bertakoak integratzeko egun aproposa da. “Gure herrian Estatuko herrialde desberdinetatik etorritako bizilagun ugari dago eta horrelako

egunek guztion integrazioa bultzatzen dute”.

Iazko edizioaz oso pozik gelditu ziren antolatzaileak eta Martinek aurtengo ekitaldi hau iazkoa bezain arrakastatsua izatea espero du. “Iaz plaza gainezka egon zen bai goizean eta baita arratsaldean ere eta jendeak asko disfrutatu zuen gainera. Robustiano Rodriguez gaur egun Aretxabaletan bizi den extremeñoak ere oso iritzi baikorra du egun honen inguruan eta beste herrialde batzuetako kultura ezagutzeko egun aproposa dela uste du. Iaz Arrasateko “Corazón de Encina” taldeaz parte hartu zuen eta oraingoan ere bertan ikusiko




# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Hau bai fin lanean! Batzuk txikiteoan eta beste batzuk lanean.



Hazelakotxea izan zen Spermán-en saioa. Ume eta nagusi, guztiak erakarri zituen bere ondora.



Kurtzebarri eskolakoek euren ortuan jasotako barazkiak ipini zituzten salgai. Jakin dugunez, bape barik gelditu ziren. Hori bai arrakasta.

Antzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañaga izan zen produktu biologikoetan irabazlea. Begiekin jateko modukoa!





**Untxiari begira begira. Lehenengo bi sarituak agertu dira, Ines Garzia eta "Fito". Nor izango da huirugarrena.**

## Langile berria

Dagoeneko ezaguna egingo zaizue Aretxagazetako langile berriaren aurpegia, San Migeletan fin-fin lanean aritu baitzen. Mirari Altube da bera. Hemendik aurrera berak izango du Aretxagazetako ardura nagusia. Mirari kimikan lizentziatua izan arren, idazteko ez zaio abileziarik falta. Beste barik, ongi etorri herriko aldizkarira.



**Talo masa egiten itxura ona daukate, baina probatu zutenek esan beharko dute hori.**



## Astaputz ikaragarria

Ez, ez da ferian ateratako argazkia, baina bertan egoteko modukoa zen. Manuel Dávila atxalbarrak Korueta aldean hartutako Astaputza da. Bere neurriak 70 zm.ko diametroa eta kilo bateko pisua izan ziren. Perretxiku mota hau jangarrien artean dago, gure artean ohiturarik ez badago ere.



**Haizeak sortu zituen komeriak herri bazkarian, ai ama, hura izan zen izatekoa.**



**Martín**  
RELOJERIA • BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tfnoa: 943 79 01 72

INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK

**RKU**

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**Super BM** IFA

SUPER BM supermerkatuak behar ditu:  
**ARRAIN-SALTZAILEAK  
HARAKINAK  
TXARKUTEROAK**

Interesatuak deitu lehenbailehen ondorengo telefono zenbakira: 943 63 33 32 (Cristina Ochoa).



Arre, arre Domingo! helduko al da helmugara? Batzuk larri ibili ziren.



Sekula ahaztuko al du Andonik? Omenaldi hunkigarria jaso zuen Beinke-Loramendi dantzaren erdian.



Eta artean batzuk bixamona ezin pasa zeudelarik, plazan trebe eta indartsu aritu ziren kirolariak.

## Andoniri sorpresa

Andoni Zubizarretari eginda-ko omenaldian sorpresa txiki bat prestatua zegoen. Herri guztiak parte hartu ahal izateko bertso polit batzuk asmatu zizkioten Larraitz Iñurrategi eta Iraia Aginagaldek. Abestu zitzaion momentua, omenaldi osoa bezalaxe, oso hunkigarria izan zen.

Hona hemen bertsoak:

*Atezain Atxabaltarra  
beti entzun izan dena,  
kirol arloan eman diozu  
herri honi izen ona.*

*Atxabaltatik joan zinen  
gogotsu hasiz bidea,  
talderik talde utzi zenuen  
zuk harriturik jendea.*

Atezain...

*Azken urratsak eman dituzu  
Atxabaltatik kanpora,  
gure herri hau beste lurretan  
ekarri duzu gogora.*

Atezain...

*Berriro hemen zaitugu,  
Andoni gure artean,  
espero dugu oraingo honetan  
gelditzea luzaroan.*


Atezain...

# bake prozesua eraiki

eraiki programa aurrera bultzatzeko, **elkarri** gizahabea arte lana atera da.


Serie mugatua, egurrean eta keramikazko inkrustazioarekin, egileak sinatuta.  
285x160x110 mm.

**elkarri**



12.000 pztatan lor dezakezu **gizahabea**  
arte lana, enpresa opari, sari,  
lagunentzako opari edo etxerako.

Laguntzea nahi baduzu, deitu 943 770174 telefonora.



Egilea: **JUAN GORRITI**



# Eguzki Alde elkarteak 25 urte

## Urteurren hori ospatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte urtean zehar

Eguzki Alde elkarteak 25 urte bete ditu sortu zenetik. Bere estatutuak sortu zireneko data 1973ko otsailaren 7an ezarria badago ere inaugurazioa San Juan egunean egin zen. Lehenengo urte hartan 80 bazkide izan zituen, Roberto Egiaren lehendakaritzapean.

Elkarteko zaindaria San Blas da eta egun hortan meza izaten da Saluenteako ermitan. Dantzari eta txistulariak ere egon izan dira eta ondoren bazkaria izaten dute bazkideek. Egun berezi honetaz gain urtean zehar ere hainbat ekintza antolatzen dute, elkarte hau gastronomiko, kultural eta atseginekoa delako.

Elkarte barruan hainbat mus txapelketa antolatzen da eta elkarte



*Eguzki Alde elkarteak bere zaindariaren egunean egindako festa.*

arteko txapelketetan ere parte hartzen dute. Gipuzkoako gastronomi elkarteak antolatutako hainbat lehiaketetan izandakoak dira eta noizpait aurreneko postuetara heldutakoak. Orain urte batzuk berri argazki rallyak antolatzen hasi ziren, argazki zaletasuna piztu eta gure bailara ezagutarazteko asmo-

tan. "Entzute handiko txapelketak izan ziren, urte batean 56 partehartzaile izan genituen. Zazpi alditan jarraian ospatu ondoren bapatean utzi egin genion antolatzeari eta aurten 25. urteurrenaren aitzakiaz berreskuratu egin nahi dugu lehiaketa hura" esan digu Jose Luis Ingudia bazkideak.

Ez San Blas egunean, ezta San Juanetan ere ezer berezirik prestatu ez zuten orain ari dira 25.

urteurrena ospatzen, irailaren 19an marrazki txapelketa haurrentzat eta mus txapelketa egon ziren eta hurrengo urriaren 11an argazki rallya izango da.

Gaur egun 105 bazkide eta bi ohorezko daude Felix Arenaza eta Inazio Azkoitia, lehendakaria, berri, Goio Besa da.



**Goio Besa**  
Lehendakaria

**- Zenbat urte bazkide gisa? eta lehendakari?**

- 22-23 urte sartu nintzenetik eta bigarrena da lehendakaritzan, aurten bukatuko dudana.

**- Zeintzuk dira lehendakariaren funtzioak?**


- Dena antolatu eta agintzea. Hamabostean behin batzarrak izaten ditugu. Batzordea lehendakariak, lehendakari ordeak, diruzainak, idazkariak eta lau bokalek osatzen dute.

**- Zergatik sartzen da jendea elkarteetan?**

- Lehen gazteak sartzen ziren orain ordea gero eta zaharragoak, 30 urtetik gorakoak eta hauek ere gutxi. Lehen neskak eta mutilak bananduta ibiltzeko ohitura zegoen eta mutil kuadrila antzeko zerbait osatzearen sortu zen.

**- Emakumeak elkarteetan bai edo ez?**

- Sukaldean jadanik sartzen dira eta iaz bozketa izan genuen. Oso gutxigatik ezetza atera zen, hirubat botogatik, baina gero eta jende gazteagoa sartzean azkenean aldatuko da egoera hori.



**ANDRA  
MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
  - Kontablea
  - Juridiko/laborala
- Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26

**LEIBAR**  
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 943 77 13 79  
**ARETXABALETA**



**MEMESA S.L.**

**Industriaren alde**


Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 943 77 11 75  
**ARETXABALETA**

# Harrituko zara!

*Escort*

Escort 1.600 i 16V 90CV 1.749.000 pta.

Escort 1.800 TDi 90CV 1.950.000 pta.



DEBA GARAIKO  
KONTZESIONARIO  
OFIZIALA

**MUGARRI**



# Andoni Zubizarreta

## Atezain ohia

Bartzelonan jai zela aprobetxatuaz eguntxo batzuk pasatzera etorri zen gure artera. Herriak, bestalde, omenaldi beroa eskeini nahi izan zion bertako kirolari famatuari. Hasieran lasai bazirudien ere, plazatik hunkituta atera zen, gainontzeko herritarrok bezalatsu.

**- Urduri omenaldirako?**

- Ez, urduri ez baina beti dago barruan zerbait. Herrikoa gainera ezberdina da, berria eta ez dakit zer izango den.

**- Euskalduna, katalana edo balentziarra?**

- Euskalduna duda barik.

**- Gustora bueltatzen zara Aretxabaletara?**

- Bai oso gustora, baina oso egun gutxikin etortzen naiz beti. Bi, hiru egun egoten naiz bakarrik, baina hamabost izanda ere gutxi izango lirateke.

**- Herrian oso gutxi parte hartu duzun sentsazioa dago?**


- Normala iruditzen zait, etorri naizen guztietan hain denbora gutxirako izan denez familiarekin egoteko aprobetxatzea gustatzen zait eta sarritan plazatik ez naiz atera izan.

**- Merezi izan dute egindako sakrifizio guztiek?**

- Bai. Gauza asko geratu dira bidean egin gabe, baina hori edozein aukera eginda gertatzen da. Bai, merezi izan dute sakrifizioek eta ez bakarrik diru aldetik, 16-18 urtekin ez baitago dirurik.

**- Semeek zure pausoak jarraitzeko asmorik bai?**

- Zaharrenari asko gustatzen zaio futbola, atezaina izan nahi duela esaten du gainera. Bestea oraindik gaztea da. Gurasook beti semeentzat onena nahi dugu eta



**“Nire ametsa Athletic-en jolastea zen, gainerakoa amestu ere egin gabekoa izan da”**

hori bada beraiek nahi dutena, aurrera. Oraindik ordea ikusteko dago.

**- Euskaraz badakite seme alabek?**

- Ez, ulertu bai baina hitz egin ez. Horretarako giro euskalduna behar da inguruan eta horixe da hain zuzen falta zaiena.

**- Geratu zaizu txikitako ametsik bete gabe?**

- Nire ametsa Athletic-en jolastea zen eta hortik aurrera etorritako beste guztia amestu ere egin gabekoa izan da. Hortik

gorakoa mundialen bat irabaztea izango litzateke baina hori ametsa ametsen ginean da.

**- Zer da zailagoa penalti bat geratzea edo telebistarako iragarki bat egitea?**

- Penaltia gelditzea. Penaltia momentu bateko gauza da eta telebistan behin eta berriz errepikatu daiteke ondo atera arte. Penaltia gelditzeak ere askoz satisfazio handiagoa ematen du batez ere ekipoarentzat lanean ari zarelako eta bere onerako delako.

**- Omenaldi asko jasoko zenituen honez gero, denak berdinak dira?**

- Egia esan ez ditut hainbeste omenaldi jaso, atzo bat Donostian eta bigarrena hau da. Ez omenaldi guztiak ez dira berdinak izaten, batzutan hitz asko esan eta plaka bat eman dute. Hau ordea berezia izango da, nahiz eta oso haundia ez izan herrikoa da eta horrek berezia egiten du.

**- Non geratuko zara orain bizitzen?**

- Bartzelonan, Valentziako futbol taldeak han gera nedin nahi zuen baina azkenean beste zerbait atera zait. Familiarentzako ere hobeto, bisitak egiteko Bartzelona Valentzia baino hurbilago geratzen baita.

**- Hemendik aurrerako planak?**

- Futboleko federazioan jokalaria eta federazioaren artean bitartekari lana egingo dut, jokalariek kexak badituzte, federazioak jokalariekin egon nahi badu,... Hortaz aparte federazioak, 2004. urteko Eurokopa Espainian antolatzea eskatuko du eta horretarako toki egokienak aukeratzeko, nik bisitatu eta aholkua eman beharko dut.

# Gripeari aurrea hartzen

Urtero bezala, udazkenarekin batera gripearen aurkako txertoaren kanpaina etorri da. Batzuk enteratu ere egin ez diren arren beste batzuk, hiru-garren adinekoak batez ere, adi-adi egon dira noiz hasiko den zain. Izan ere hein haundi baitetan, beraiek dira protagonista kanpaina honetan.

Udazkeneko haize, euri eta tenperatura aldaketak batzuri erromantikoak direla iruditu arren, pertsona nagusiei arazo eta buruhausteak besterik ez dizkiete ekartzen. Hori dela eta irailaren 14an, urtero bezala garai honetan,

gripearen kontrako kanpaina jarri zen martxan.

65 urtetik gorakoei egiten zaie deialdia bereziki, baina badaude gazteago batzuk ere osasun zentrutik pasatu beharko dutenak, diabetesa dutenak, gibel eta giltzurrunetako gaixotasundunak, bronkitis kronikodunak, bihotzeko gaixotasunak dituztenak eta baita pertsona nagusiekin lan egiten dutenak ere.

## ZERGATIK 65 URTETIK GORAKOAK?

Adin honetatik aurrera beti izaten dira osasun arazoak, nahiz eta larriak ez izan, gripea harrapatzean aurreko arazo txiki

horiek buruhauste galantak bihur daitezke. Era berean, pertsona nagusiekin lan egiten dutenak ere kutsatzeko arriskuan daude. Horregatik gripeari aurrea hartzea komeni dela diote medikuek, beti ere gomendioa delarik, inor ez baita txertoa hartzera behartzen.

## GRIPEA EZAGUTZEN

Gripea birus batek sorrarazten du. Birus hau ordea, oso berezia da eta urtero urtero aldatu egiten da. Urte batzutan oso gripe gogorak egon izan dira, hurrengoan erabat leunak ere toka daitezke.


Gripearen sintomarik arruntak sukarra, burukomina, botagurea eta giharretako mina dira.



Txertoa hartzeko zain dauden herritarrak

Gorputza erabat ahulduta geratzen da eta asko kostatzen zaio lehengo indarra berreskuratzea eguneroko bizitzara bueltatzeko. Behin harrapatuz gero ez dago zereginik, lasai hartu eta laupabost egun ohean pasatu behar. Komenigarria izaten da medikuarengana joatea, botikak, zertarako diren jakin gabe, etxean ez hartzeko. Ez dago ordea sendagai konkreturik gripea osatzeko, baina bai sintomak arindu ditzaketen antibiotiko eta analgesikoak.

Jendearen artean uste eta esamez asko egon izan da, txertoak ez duela ezertarako balio edo hartu ondoren haundiagoa harrapatu



Aretxabaletan txerto mota hau ematen da

duela, adibidez. "Sarritan gripea eta katarroa nahastu egiten dira" dio Clementek, Aretxabaletako gripearen kontrako kanpainaren arduradunak. "Txerto honek ez du arnas aparatuko edozein gaixotasunentzat balio, katarroarentzat esaterako, gripearentzat da bakar bakarrik. %100ean ere ezin da ziurtatu griperik ez denik hartuko, baina hori bai, ez da hain larria izango".

Txertoak dituen osagaienganako alergiarik izan ezean, ez du inolako arriskurik, baina hartutako egunean sukar apurren bat edo besoan gorrituak agertzea, beti ere garrantzirik gabekoak, normaltzat jotzen da.

## OSASUN ZENTRURA BISITA

Txertoa hartzeko, urriaren 30a bitartean edozein goizetan hurbil daiteke osasun zentrura, baina aurrez ordua hartzea gomendatzen da, lana erraztu eta itxaron beharrik ez egoteko. Osasun zentruko telefonoak 797458 eta 797488 dira.

Bertako langileek, bestalde, jende guztiari gogorarazi nahi diote osasun zentrura beti txartelarekin etorri behar dela, nahiz medikuarengana nahiz odola ateratzera joan.


Iazko datuen arabera, 65 urtetik gorakoen artean %65ak hartu zuen txertoa. Aretxabaletan 800en bat hirugarren adineko daudela kon-

## "Txerto honek ez du arnas aparatuko edozein gaixotasunentzat balio"

tutan hartuta, 520 inguru izan ziren; hauetaz aparte 65 urtetik beherako batzuk ere jaso zuten. Aurten oraindik ezin da esan zenbat izango diren. Lehenengo astean 158k jaso bazuen bigarreanean gehiago izan ziren. Gehientsuenak ordea urrirako utzi du osasun zentrura egin beharreko bisita.

Beraz, nahi duenak badaki nora jo gripeari aurrea hartzeko eta oraindik denboraz dabil. Nahi ez duenak, berriz, ez du zertan hartu, baina ondoren kexatzerik ere ez du izango. Aurten agertuko den gripea ez dadila oso gogorra izan espero dezagun guztiok, zahar eta gazteok, eta bestela badakizue esne beroa, eztia, limoia eta ohera.

## "Orain bost urte hasi nintzen txertoa hartzen"



Demetrio Alvarez Seoan  
72 urte

- Txertoa hartzen duzun zenbagarren aldia da?

- Badira 5 urte hartzen hasi nintzela eta geroztik urtero hartzen dut.

- Zure osasunak hobekuntzarik nabaritzen al du?

- Bai. Ez naiz sekula izan katarro eta gripe asko hartzen duenatarikoa baina txertoa hartzen dudanetik lehen baino gutxiago.

- Ondoriorik nabaritzen al duzu txertoa hartu ondorengo egunetan?

- Bai. Sukar apur bat izaten dut eta besoan, txertoa hartutako lekuan, bolatxo bat ateratzen zait. Ez dira batere garrantzitsuak izaten berehala desagertzen baizaizkit.

- Gomendatuko al zenieke hartzen ez duten hirugarren adinekoei?

- Bai. Jende guztiak ez du hartzen, batzuk ez dutela hobekuntzarik nabaritzen diote eta handiagoak harrapatzen dituztela diotenak ere badaude. Nik, ordea, txarrik ez duela egiten uste dut eta txertoa hartzera animatuko nuke jendea.

## Gazteen xake talde berria liga jokatzeko hasteko gertu

Kepa Balenziaga, Aitor Bote eta Andoni Carrasco Arlutz B xake taldeko partaideak dira. Hamaila urte dituzte eta iazko ikasturtean ekintza extraeskolarraren barruan izan zuten xakea probatzeko aukera. Bertan Aitor Alcaide maixu zutela eman zituzten lehen urratsak eta ordutik gustoko dute xakea. Astelehenero elkartzeko dira xakean jokatzeko eta datorren hilean liga jokatzeko hastekoak dira.

### Gazteen liga urrian

Gipuzkoa 3. mailako ligan jokatzeko hasteko gogotsu daude hiru mutilak. Beraien ustez, xakeak kontzentrazio handia eskatzen du, baina ikasteko ez dela gatxa airtortzen dute, kirol eta gauza guztietan moduan hemen ere praktikatzeko da garrantzitsuena.

Aitor Alcaidek, bestalde, ligan ondo erantzun duela uste du, nahiz eta aurtengo urtea ikasteko erabiliko duten. Dena dela, datorren urtean egurra emateko gertu egongo direlakoan dago maixua.

### Arlutz A: aurten ere preferente

Azkenengo urteetan bezalaxe Arlutz A xake taldeak preferente mailan neurtuko ditu indarrak aurten ere. Orain hiru urte hirugarren eta iaz bigarren gelditu ondoren, aurten Euskal ligara igotzeko esperantza handia dute. Hemen maila nabarmen igotzen dela jakinarazi digu Aitor Alcaidek, eta jakina horra igotzeko gogor ikasi beharko dutela garbi du. Aurten ikasiko duen promesa egin dio bere buruari eta taldekideekin batera Euskal Ligara igotzeko ilusioz dago.



Aitor Bote, Andoni Carrasco eta Kepa Balenziaga xake jokalariek

## Gimnasio berriaren inauguraketa zapatuan

Kiroletxeko gimnasio berriaren inaugurazio ekitaldia datorren zapatuan, hilak 3, egingo da eguerdiko 1,30etan. Bertan Juan Antonio Rodríguez alkateak parte hartuko du, kiroltako zinegotzia den Lorenzo Fernándezekin batera. Kiroletxeko arduraduna eta Asier Mugika kirol teknikaria ere bertan izango dira.

Gimnasio berriak lehenengoan aldean, itxura txukuna erakusten du. Beraz, 90 m<sup>2</sup>ko lokala gertu dago inauguratzeko. Lorenzo Fernández zinegotziaren berbetan, "bazkideentzako zerbitzu bat gehiago ipini nahi izan dugu, 20 makina inguru daude orain eta gainera zerbitzua dohainekoa izango da". Bazkideak hasi dira dagoeneko gimnasioa erabiltzen eta Asier kirol teknikariaren esanetan arrakasta handia izaten ari da.

### Aerobic-a, gimnasia eta karatea

Rokodromoa kendu eta lehenengo gimnasioko bi zatiak batu ondoren, 140 m<sup>2</sup>ko leku ederra gelditu da aerobic-a, gimnasia eta karatea praktikatzeko. Lehen rokodromoa zegoen lekuan ispilu handi bat jarri da, hiru modalitate hauek egiteko benetan egokia dena. Dena dela, rokodromo berria egiteko asmoa ere azaldu du Lorenzok, "baina agian datorren urtean, aurtengo aurrekontuetan ez baita azaltzen".

**"ARINSA"**

**Aretxabaletako industrialdea S.A.**

Basabe poligonoa "EO-10"  
Tfnoa: 943 79 62 80  
ARETXABALETA

*Okindegia - Gozotegia*

*Aretxabaleta*

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

# Lurdes Elkoro

## Tourmaleta eta Santiagoko bidea bizikletan

Orain bost urte ekin zion Lurdes Elkorok bizikletan ibiltzeari, 38 urterekin. "Gizona asko ibiltzen zen eta poliki-poliki neu ere animatu egin nintzen". Ordutik bi erruerako tramankulari gustua eta afizioa hartu dio eta aurten Tourmaleta igo eta Santiagoko bidea txirrin-duan egin ditu. A ze meritu!

• Sekula burutik pasatuko zitzaizun Tourmaleta eta Santiagoko bidea txirrin-duan egingo zenituen?

Ez. Nik sekula ez dut bizikletan ibiltzeko ohiturarik izan. Gaztetan gainera oso gaitza zen bizikleta bat izatea. 38 urterekin txirrin-duan ibiltzen hasi eta nola imajinatuko nuen ba?

• Eta nola izan zen hasiera hori?

Gizona betidanik ibili izan da bizikletan. Riojara joaten hasi ginen eta bertan lehen urratsak eman nituen. Hura hau baino hobeto dago txirrin-duan ibiltzeko, lauagoa da eta trafiko txikia duten bide asko dago. Gero hemen ibiltzen hasi nintzen.

• Zergatik uste duzu zure adineko emakume gutxi ikusten dela bizikletan?

Beldurratik izan daiteke agian. Nik ere hasieran beldurra pasatzen nuen, batez ere trafikoagatik. Kamioi bat aldamentetik pasatzen zitzaidan bakoitzean beldurtuta egoten nintzen baina gero ohitu egin naiz. Dena dela, errespetu handia diet ibilgailuei.

• Eta kirol batean



**“Txirrin-duan norberaren erritmora joatea da garrantzitsuena”**



Tourmaletera igo aurretik eta ondoren ataratako argazkia

nola sortzen da afizioa?

Poliki poliki eta gauza samur eta errazetatik hasita. Bizikletan irteten ginen bakoitzean nire senarrari atzetik jarraitzen nion, nire erritmora baina bizikletatik jeitsi barik. Horrela afizioa hartu dut, bizikletan ibili eta disfrutatzen ikasi dut. Hori da garrantzitsuena, ondo pasatzea.

• Gertatuta egon behar da Tourmaleta igo eta Santiagoko bidea egiteko?

Bai, burutik batez ere. Aurretik entrenatuta joan behar da, sufritzeko kontzientziatuta. Dena dela Tourmaletera joan ginenean ez nekien igoko nuen ala ez, ahal nuena egitera joan nintzen. Gogorra izan zen, oso ibilbide aldapatsu eta luzea, baina azkenean lortu egin nuen. Santiagoko bidea oso esperientzia polita izan da, berezia eta errepikatzen modukoa. Bizikletan ibiltzea gustatuz gero, edonori gomendatuko nioke.

• Horrelako beste planik bai?

Bi urte barru ostera Santiagoko bidea egiteko asmoa dugu, beste senide batzuekin. Bestalde, "La ruta de la plata" (Salamanca-Sevilla) eta "La ruta del Cid" (Burgos-Valentzia) beste aukera batzuk izan daitezke.

• Hemen inguruan ibilbide gustorik?

Bakarrik irteten badut Urkulura joaten naiz normalean. Bestela, Armaixotik Kurtzeta, Arantzazura, Oñatira, Landa eta Araba aldera...

# Auzolana bizirik

**Auzolanak indarra galdu badu ere, oraindik bizirik dagoela erakusten diguten elkarlanak egiten dira. Oinurrengo batean larrinutarrak auzolana egiteko asmoz elkartu ziren auzoko elizondoan.**

**Helburua Galarrixa eta Ursabal aldera dauden basoetara doazen bideak konpontzea zen, urarendako arekak egin, zuloak bete eta berdindu, sasiak moztu...**

Urte batzutatik ona auzolana nabarmen jeitsi da auzoetan eta honen arrazoietako bat baserriak jasan duen beherakada izan daiteke. Baserritarren ahotik horixe entzun dezakegu behintzat, lehen aldean ohitura honek garrantzia galdu duela. Jose Urkia Larrinuko auzoalkateak auzolana betidanik ezagutu izan du, baina aspaldiko urteetan ohitura honek beherakada nabarmena jasan duela azpimarratzen du. "Auzoan premia galanta egon arren, auzo lana gutxi egiten da, ohitura galdurik dago eta noizean behin bakarrik elkartzen gara".



*Auzolana egiteko bildu ziren larrinutarrak*

## Udalak hamarretakoa ordaindu

Aspaldiko urteetan auzotarrek egin izan duten elkarlan honetan Udalak bere partehartzea izan du. Garai batean Udalak bi sasi-gizon bidaltzen zituen auzoetara bideko bazterrak garbitzeko eta auzotarrak, kalera jeisten ziren Udalak horrelakoetan oparitzen zituen ardo botilak jasotzera. Honetaz gain bada oraindik bizirik mantentzen den usadio bat, Udalak auzolanean dabiltzanei hamarretakoa ordaintzearena hain justu.

## Bidea konpontzeko premia

Larrinuko auzotarrek orain 31 urte egin zuten auzoko bidea euren poltsikotik ordainduta. Honekin

batera Etxebarri baserritik Ursabalera dagoen baso bidea ere auzotarrek finantziatu behar izan dute. Orain arte, beraz, laguntasun txikia eduki dute eta hori horrela izanik, dirulaguntza publiko haundiagoa eskatzen du Jose Urkiak. Gaur egun auzoko bide nagusia oso egoera kaskarrean aurkitzen da, eta Joseren ustez, Udalak zein Foru Aldundiak zeregina dute bide horiek konpontzerako orduan.

## Hamairu baserriko auzoa

Azatarako bidean ezkerrera hartuta kokatzen den auzoa dugu Larrinu. Hamairu baserri ditu guztira: Iturgarai, Iturriotz, Lekun-

berri, Bernabena, Larrino-Garai, Teileixe, Uribe, Leixalde, Etxebarri, Kakotegi, Intxusia, Zuatzu eta Ursabal. Azken hau Larrinuko baserria izan arren, bidea Zubillagatik du. Hamairu etxez gain San Kristobal eliza auzoaren tontorrean dago, izen bera daraman elkar-tearen ondoan.

Biztanleriari dagokionez 62 bizilagun bizi dira Larrinun. Baserri batzutan pertsona bakarra bizi da, baina badira 9-13 bizilagun dituzten etxeak ere. Beraz, garai batean baserriak utzik geratzen hasi zirela uste bazen ere, auzoek beren bizitasuna berreskuratu dutela esan daiteke.

**M**obiliario  
**ARENAZA**

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, I - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABAETA

**GEMES**

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18  
Aretxabaleta

**Maritxu**  
Mertzeria


Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 943 79 23 53  
ARETXABAETA



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Tfnoa: 943 77 11 76





## *E* Eskolako umeak

Erretratu zahar hau 1957ko azaroaren 25ean ateratakoa da, astelehena zen gainera. 10-14 urte bitarteko umeak dira, garai hartan batera egoten baitziren klasean. Zintzo aurpegia jarri bai, baina egurreta galantak hartutakoak izango dira bat baino gehiago.

Argazkikoak goitik hasita ezkerretik eskumara: **Don Angel Osinaga (irakasle arabarra).**

**Altube (errekaabiarte), Roberto Urreta, Jesus Urkia, Rikardo Garro, Jose Antonio Jauregi, Jose Luis Txintxurreta, Jose Luis Urrutia, Jose Luis Plaza, Jose Mari Lasas, Luis Mari Otxoa, Jose Kruz Urzelai, Karmelo Azkoitia.**

**Jose Anduaga, Benito Perez, Jorge Zubizarreta, Jesus Lonbide, Jesus Aldai, Pako Antia, Jose Antonio Aginagalde, Jose Luis Zubiria, Jabier Urzelai, Jesus Migel Errasti, Nikasio Unanue.**

**Esteban eta Jesus Mari Herrasti, Jose Manuel Gabilondo, Ramon Osinaga (aurrekaldean), Juan Antonio Rodriguez, Iñaki Lizarralde, Luis Del Teso, Kepa Akixu, Jose Antonio Arkauz, Angel Mari Osinaga (irakaslearen semea).**

**Jose Luis Gutierrez, Jesus Pedro Azkoitia, Jose Manuel Erlaiz, Karmelo Usandizaga, Enrike Irizar, Jose Ramon Arenaza, Iñaki Irizar, Juan Luis Isasmendi, Jose Inazio Sasiain.**



Zenbaki

Basabe  
Industrialdea  
**Aretxabaleta**  
Tfnoak: 943 71 21 12  
943 71 22 68

**Aholkularitza**

*Etxabe*  
*harategia*

Durana 4  
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 943 77 13 57

## LANA

◆ **Pertsona bat** behar da arratsaldetan **ingeleza** emateko. Tfnoa: 943 79 00 69.

◆ **Zerbitzaria** behar da. Ahal dela euskalduna eta emakumea. 943 79 16 68 telefonora deitu.

◆ **Emakume bat** behar da umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 79 67 26

◆ **Emakume euskalduna** behar da bi ume zaindu eta etxeke lanak egiteko. Tfnoa: 943 79 77 13 (arratsaldeko 7etatik aurrera deitu).

◆ **Majisteritza** egin duen pertsona batek klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 943 79 06 81

### ◆ Langaiko lan eskaintza

**Kalitatea kontrolatzeko teknikaria.** Deba Garaia. Ref: 12176/1

**Idazkari tekniko.** Deba Garaia. Ref: 12694/2

**Administraria.** Tolosaldea. Ref: 12259/2

**Ileapaintzailea.** Bilbo. Ref: 12280/3

**Estanpatzailea.** Arabako lautada. Ref: 12330/3

### ◆ Lan eskaintza publikoak



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.**

### Administrari laguntzailea Berriozarko udala

Epea: 98/10/9  
Oinarriak: 98/9/9

### Famili langileak (7) eta zerbitzu anitzeko langileak (13)

#### Iruñako udala

Epea: 98/10/7  
Oinarriak: 98/9/7

## DENETARIK

◆ Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio) pisua osatzeko. Tfnoa: 943 77 13 77.

◆ Leioan pisu bat osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 943 79 30 61 telefono zenbakira.

◆ Autojestionarako nekazaritza eta artizautza proiektuak dituzten lau gaztek, berrizteko dagoen baserri zahar bat nahiko lukete, Tfnoa: 943 79 48 09.

◆ San Migeletan urrezko eraztuna galdu zen, aurkitu duenak deitu 943 79 01 05 zenbakira.

## ETXE BIZITZA

◆ Pisu bat erosi nahi da Aretxabaletan berehala betetzeko. Tfnoa: 943 79 32 92.

◆ Jantzitako atikoa alokagai Aretxabaletako erdialdean. 70m<sup>2</sup>ko balkoia eta berogailuz hornitua. Tfnoa: 943 79 04 86.

◆ Pisua salgai dago Eskoriaztako San Pedro auzoko 11. zenbakian, 2. solairua. Interesatuak deitu 943 71 43 58 telefono zenbakira. (Felis).

## LEHIAKETAK

◆ **Urnietako IV. pintura rallya.** Edonork parte har dezake. Lanak aire zabalean eta teknika librean izango dira, gaia Urnietan delarik. Neurriak 0,5x0,5 m. gutxienez eta 1x1m. gehienez. Lanak egun berean 16,00etatik 17,00etara bitartean Kultur Etxean aurkeztu behar dira. Sariak: irabazleak: 75.000 pta. Bigarrenak: 50.000pta.

◆ **Leintz bailarako VIII. argazki rallya** Aretxabaletako Eguzki Alde elkarteak antolatua. Urriaren 11an, goizeko 9etan hasi eta 14etan bukatuko da. Argazkiak koloretan izango dira, 10 gai egongo direlarik. 13 argazkitatik 10 entregatu behar dira eta ondorengo egunetan erakusketa egingo dute elkarteak. Sariak: 1., 2. eta 3. multzo onenari. Euskaldun gai onenari, gai libre onenari eta argazki onenari.



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 943 79 34 28  
**ARETXABALETA**

## CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 943 77 17 06

Aralar z/g  
Tfnoa: 943 77 17 04

**ARETXABALETA**

## ITURGINTZA

**J.J**

Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87

# Gora San Labelak




San Migelak ere azkar asko igaro zaizkigu. Ni neu, domekaz gerotzik etxeko besaulkian pega-pega eginda nago. Sagardoak uste baino eragin handiagoa izan du nigan. Hala ta guztiz ere asteburuak emandakoa gogoratzen saiatuko naiz. Urtero bezala mus txapelketak izan du tokirik aurtengo San Migelen egitarauaren barruan. Aurtengo bikote garailea **Eneko Perez** eta **Iban Andresek** osatutakoa da. Gazteak izan arren, beste jokalaririk asko bezain ziri sartzaille onak zirela erakutsi zuten. **Iturbe** eta **Rioja**, berriz, txapela eskuratzetik oso gertu ibili ziren. Ohiturari jarraituz, patxaran lehiaketak ere ikusmin handia bildu du aurtengoan ere. **Amaia Iasisasmendi** eibartarrari egokitu zitzaizkion lehiaketako lehenengo eta hirugarren sariak. Antza, **Jose Lonbide** atxabaltarraren patxarana epaimahaiaren gustokoa izan zen,

atxabaltarrari bigarren saria egokitu baizitzaion. Lehiaketekin jarraituz, produktu biologikoen erakusketan ere sariak banatu ziren. Denetik ikusteko aukera izan genuen bertara hurbildu ginenok. Baserritarren izerdiak saritu asmoz, **Tomas Larrañaga** antzuolarrak eraman zuen lehenengo saria. **Peio Rubio** elgoibartarrak, berriz, bigarren saria eskuratu zuen. Lehiaketa honetan ere, fin ibili zitzaigun atxabaltarron ordezkaria, **Jose Lonbidek** hirugarren postua eskuratu baitzuen. Omenalditarako astia ere izan genuen San Migeletan, **Andoni Zubizarretak** blusa eta herritarren txaloak jaso baitzituen. **Aiora Filarmendi** eta **Kepa Errastik** eman zioten blusa atezain ohiari. Txaloak ugari eta arrantzak ere ez ziren gutxiago izan. Makina bat arrantza entzun behar izan nituen Durana kalean zehar. Zaldunek euren ausardia erakusteko aukera bikaina izan zuten. Baina denen artean ausartena **Ekaitz Filarmendi** izan genuen Ezkutu tabernan asto ta guzti ibili baitzen. Badaezpada onena ixiltzea izango da.

Baina ixildu aurretik beste txapelketa bat aipatu barik ez dut joan nahi, domekako txirringulari lasterketan **Imanol Juez** gasteiztarra izan genuen azkarrena. Honek ez zuen bixamonik.

Bixamon kontuak alde batera, konturatu al zarete gaurko honetan lehiaketez eta sariez besterik berba egin ez dudala? San Labelak banaketan hasi beharko dugu hemendik aurrera.

## Liburutegiko txokoa



**Atea kox-kox**  
Juan Kruz Igerabide  
Marraskilaria Jesus Lucas  
Elkar 1997

**E**skolako bidean neska-mutiko batzuk elizako atean jotzeko ohitura dute. Halako batean eskale itxurako gizon bat agertuko zaie. Santiagoko bidea egindako gizon bat da eta joaten denean, koaderno baten idatziak utzi dituen ipuin eta poemak oparituko dizkie haurrei.

Ipuin hauek ere bere gaztaroko fantasiazko jokoak eta pasadizoak biltzen ditu erromesak, zenbait poesiekin batera. Ipuin sinpleak dira, haurtzaroko fantasiekin loturik daudenak, hala nola basoan agertzen zen Lazedemon zaldun maltzurrena, etxean behin egin zuten sukaldaritzako saio xelebrea etabar.

8 urtetik aurrerako haurrei zuzendua dago liburua eta oso gustora irakurriko dutela uste dut, ipuinak laburrak direlako eta tratatzen dituen gaiak umorez eta fantasiaz beterik daudelako. Poemek idazle beraren "Begi niniaren poemak" eta "Haur korapiloak" liburuak ekartzen dizkigute gogora.

Joseba Lopez de Armentia

URRIA

3

zapatua

**GIMNASIO BERRIAREN  
INAUGURAZIOA**

Kiroletxeko gimnasio berria eguerdiko 1,30etan inauguratuko da kiroletxean.



**KILOMETROAK 98**

**Tolosaldea**

Loramendi elkarteak Tolosaldeko kilometrotara joateko autobusa antolatu du. Izen ematea Loramendin egin daiteke urriaren 1a baino lehen. Autobusak 9,15etan irtengo du Azbetik eta itzulera arratsaldeko 8etan edo 10etan egin ahal izango da.

**ANTZERKIA**

ARATZ elkarteak antolatuta, Kiroletxean arratsaldeko 8,45ean izango da. Sarrera: 1.500 pzta. eta 18 urtetik beherakoentzat 1.000 pzta. TANTTAKA, eta 3XTR3S ek **DAKOTA** antzezlanaren aurkeztuko dute. Aktoreak Joseba Apaolaza, Aitzpea Goenaga, Ramon Agirre eta Jose Ramon Soroz dira eta zuzendaria Josep Maria Mestres.



**JUBILATUEN EGUNA**

Goizeko 11etan salda izango dute Basotxon eta 12etan meza nagusia. Ondoren bazkaria egongo da Kiroletxean.

**AURKEZPENA**

Arratsaldeko 7,30etan Udaletxeko ganbaran. **EGINGO DUGU** Proiektu berriaren aurkezpena. Hizlaria: Mikel Zuazabeitia.

4

domeka

**HAINBAT ESKUALDETAKO  
PRODUKTU ETA DANTZEN  
EGUNA**

Goiz eta arratsaldez herriko plazan hainbat ekintza egongo da ikusgai.

**ARGAZKI RALLYA**

Leintz Bailarako VIII. argazki rallya Eguzki Alde elkartearen izango da goizeko 9etan hasi eta ordu biak arte. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du 1.200 pezeta jarriaz.

17, 18

7

egustena

**ELGEAKO ZENTRAL  
EOLIKOAREN AURKAKO  
AKANPADA ETA MARTXA**

Urriaren 17an akanpada egingo da Degurixan, arratsaldeko 5etatik aurrera.

Urriaren 18an Elgeara mendi martxa goizeko 9etan Urkulutik irtenda. Ekitaldia Amuategiko tontorrean izango da 12etan. Bertan salda, hitzaldiak eta bestelakoak izango dira.

ARGAZKI

*Urkiola*

Tfnoa: 943 79 39 20  
ARETXABALETA

**Jauregi  
Okindegia**

Otalora, 10  
Aretxabaleta

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABALETA

Izozkitekari-Gozotegia  
**IZOZKITEGI**

Otalora, 11  
Tfnoa: 943 79 93 58  
ARETXABALETA

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekararren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

*Harategia  
Bereziki Urdaitegia  
Fruitategia*

**IMANOL  
JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83 ARETXABALETA

**S.T.** Itzulpen  
zerbitzua

**ARETXABALETAN**

Alemana, frantsesa, ingelesa,  
umeentzako euskara  
Informazioa: 943 79 00 69  
Bulego orduak: arratsaldez  
3.30 pm - 6.30 pm

## IKASTARROAK

**BAINIKA IKASTAROA**

Udaletxeko kultura sailak bainika ikastaroa antolatu du. Blanca Perek emango du eta izen ematea kultur etxean egin daiteke urriaren 11a baino lehen. Prezioa: 3.000 pta.

**ESKULAN IKASTAROA**

Udaletxeko kultura sailak eskulan ikastaroa antolatu du. Irakasleak Mila Akixu eta Rosa del Aguila izango dira. Izen ematea kultur etxean bertan egin daiteke urriaren 11a baino lehen. Prezioa: 3.000 pta.



*Eskulan ikastaroan izena emateko epea zabalik dago kultur etxean*

**EMAKUMEENTZAKO SOLDADURA IKASTAROA**

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak emakumeei zuzendutako soldadura ikastaroa antolatu du. Emakume langabetuei zuzenduta dago. Oñatiko Olaburu industri poligonoan izango da, astelehenetik ostiralera ordu 2etatik 6etara. Azaroaren 2tik 1999ko martxoaren 31 arte. Izen emateko epea urriaren 15ean bukatuko da. Tfnoa: 943 79 09 00.

**MANTENTZE GIMNASIA: ORDUTEGI BERRIA**

Irailean jarri ziren martxan mantentze gimnasiako klaseak, astelehen, asteazken eta ostiraletan 9,15-10,15; 5,15-6,15 eta 6,15-7,15. Urriatik aurrera ordutegi eskaintza hau zabaltzeko asmoa dago, kaleko pertsonen eskaerari kasu eginez, batez ere, dendatan lan egiten duten pertsoneri. Horregatik mantentze gimnasiako ordutegi berria arratsaldeko 3etatik 4etara izango da, taldea sortzen bada behintzat. Aipatutako edozein ordutegietan apuntatzeko kiroletxetik pasatu edo 943 79 64 61 telefonora deitu.

BEHARREZKO  
TELEFONOAK**Aretxabaleta**

|                         |              |
|-------------------------|--------------|
| • Almen                 | 943 71 49 07 |
| • Aretxagazeta          | 943 79 01 05 |
| • Basotxo               | 943 77 09 81 |
| • Euskalergia           | 943 79 21 68 |
| • Gizarte-Laguntzailea  | 943 79 10 00 |
| • Hezibide Elkarte      | 934 79 31 32 |
| • Industrialdea         | 943 79 62 80 |
| • Institutua            | 943 79 79 00 |
| • Kiroletxea            | 943 79 64 61 |
| • Kultur-Etxea          | 943 79 01 05 |
| • Kurtzebarri Eskola    | 943 79 00 49 |
| • Kurtzebarri B.H.I.    | 943 79 57 40 |
| • Liburutegia           | 943 79 10 00 |
| • Loramendi E.E.        | 943 77 09 70 |
| • Ludoteka              | 943 79 05 81 |
| • Murruxio M.E.         | 943 79 93 74 |
| • Musika Eskola         | 943 79 36 50 |
| • Ortzadar              | 943 79 01 84 |
| • Osasun zentroa        | 943 79 74 58 |
| • Otalora               | 943 79 79 99 |
| • Parrokia (Bulegoa)    | 943 79 18 42 |
| • Pausoka Haur-Esk.     | 943 77 03 77 |
| • Postetxea             | 943 79 28 31 |
| • Santa Rita Ikastetxea | 943 79 17 00 |
| • Taxi Geltokia         | 943 79 22 33 |
| • Udal Bulegoak         | 943 79 10 00 |
| • Udaltzaingoa          | 943 79 10 52 |
| • Urats Gain            | 943 79 99 11 |

**Udaltzaingoa**

|              |              |
|--------------|--------------|
| • Arrasate   | 943 79 14 39 |
| • Bergara    | 943 77 91 06 |
| • Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| • Oñati      | 943 78 04 11 |

**Larrialdiak**


|                                 |              |
|---------------------------------|--------------|
| • SOS Deiak                     | 112          |
| • Eskualde-Ospitalea (Arrasate) | 943 79 53 00 |
| • Ertzaintza                    | 943 79 71 99 |
| • Gurutze-Gorria                | 943 76 55 76 |
| • Larrialdiak                   | 943 77 10 43 |
| • Suhiltzaileak (Oñati)         | 943 79 28 00 |

**Garraioak**

|                     |              |
|---------------------|--------------|
| • Pesa              | 902 10 12 10 |
| • Renfe (Gasteiz)   | 945 23 02 02 |
| • Renfe (Zumarraga) | 943 72 15 15 |

**ERREKABARREN  
MERKATAL ZENTRUA**

|                              |              |
|------------------------------|--------------|
| • JUANTXO URDAITEGIA         | 943 79 75 42 |
| • MARI KARMEN OINETAKO DENDA | 943 79 59 85 |
| • IRUDI ILEAPAINDEGIA        | 943 79 80 90 |
| • MIREIA ARRAINDEGIA         | 943 79 31 59 |
| • LEINTZ-ROSI                | 943 79 78 63 |
| • ERREKABARREN FRUITATEGIA   | 943 79 96 43 |



Bizi guztia darama Jose Ignacio Arkauzek gerra aurretik zabaldu zen Matikua tabernan lanean. Sortu ere bertantxe sortutakoa da orain 51 urte.

Tabernako lanak denbora asko kentzen dion arren, ehizan egiteko beti aurkitzen du tartetxo bat.

• Zenbat urte daramazu Matikuan?

Bizi guztia daramat bertan lanean.

• Noiztik dago taberna hemen?

Gerra aurretik zabaldu zen, 1935. urte inguruan. Beraz, herriko zaharrenetakoa da.

• Nondik dator Matikua izena?

Ez dakit, baserriaren izena da.

• Zer du txarra tabernako lanak?

## “Aurten ere hartuko dut tartetxo bat ehizan joateko”

Lotua izatea eta jai gutxi izatea.

• Platerrik gustokoena?

Etxeko baba gorriak.

• Baserrian ala kalean bizitzea gurago?

Baserrian.

• Egunkari, irratia edo telebista?

Egunkaria.

• Aurtengo hauteskundeetan botoa emateko asmorik bai?

Orain arte ez dut sekula botatu.

• Herriko jairik onenak?

Lehen Andramaixak. Jakina, gaztetan beste modu baten ikusten dira jaiak. Orain auzoko jaiak: San Juanak.

• Siestarik?

Bai, egunero egiten dut ordutxo bat.

• Afiziorik?

Ehizan egitea.

• Nora joaten zara ehizan?

Hemen inguruan ibiltzen naiz, baina azkenaldian gutxi joaten naiz.

• Aurten ehizan egiteko asmorik bai?

Bai, bueltatxo bat egingo dut.

• Kartetan jokatzeko ohiturarik?

Lehen asko, tutean normalean.

• Soldaduzka non egin zenuen?

Ez nuen egin, baina orain egin behar banu intsumiso egingo nintzateke.

• Zer du ona udazkenak eta zer txarra?

Eguna moztu egiten da eta egunak tristeagoak dira, bestalde, ehiza denbora dela kontuan izan behar da.

• Postrerik gustokoena?

Gazta.

• Eguneko momenturik lasaiena?

Siesta denbora.

• Kotxea beharrezkoa da?

Bai, niretzat bai.

• Bizarrak ala barik gurago?

Barik.

• Baserriko ogia ala kalekoa?

Baserrikoa gurago dut.

• Animalia gustokoena?


Txakurrak asko gustatzen zaizkit, baina etxetik kanpo. Behiak ere gustoko ditut, lan asko ematen duten arren.

• Aretxagazetan zer gustatzen zaizu gehien?

Kontu zaharrak, baina orokorrean dena.

## KOMIKIA

### BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

# TABERNA eta JATETXEEN GIDA

## Matikua taberna

*Matikua*

*Jatetxea eta taberna*

Azatza auzoa ♦ Tfnoa: 943 79 16 68

## Zaraia taberna

MANTEKA  
ANAIK

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzura

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88

## Gurea taberna

Jatetxea eta  
taberna

GUREA

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## Josu harategia

- Urdaitegia-Gozotegia
- kroasantegia
- Gertatutako janariak

*Josu Harategia*

Mitarte, 1 • ARETXABALETA

Tfnoa: 943 77 03 08

## Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

## Express akeitegia

Express  
akeitegia

*zure gustoko giroa*

Santa Kurtz, 16

☎ 943 79 23 43

## Baster alde jatetxea



Sasoiko  
jakiak  
giro one-  
nean

Galartza auzoa  
© 943 79 24 58  
ARETXABALETA

## Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 20 67

## Goyaran erretegia



Goyaran ERRETEGIA

♦ Parrila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETA  
☎ 943 79 68 57

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 85 57

## Mendiola erretegia

ESKORIATZA  
Tfno 714845  
ERRETEGIA  
MENDIOLA

♦ Bazkari  
eta afariak

Astehenetan  
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Izotz taberna

*Zure gustoko giroa*

IZOTZ  
TABERNA

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

## Amets taberna

AMETS

Taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29  
Aretxabaleta

## Mitartegarai

Mitartegarai  
Jatetxea

Arientza auzoa ARET-  
XABALETA  
Tfnoa: 943 79 17 51



## Dorleta taberna

Dorleta

*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi 8 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 94 15

# centro hogar MUEBLES



a,eme...interiores

sukaldeak



Sofa  
leku



GRUPO  
Amuebladora  
Mondragonesa

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE  
TNOS. 943.791503 - 943.771492 • FAX 943.791489